II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Fruizko Udala

### Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2019ko ekitaldiko Errolda

Zergadunak jakitun jartzen ditugu, Alkateak 2019ko otsailaren 4ko dataz hartutako 24/2019 Dekretuaren bidez 2019 urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zergaren errolda onartu duela.

Gaineratzen da adierazitako kontzeptuengatik zergapean dauden guztientzako jakinarazpenaren ondoreak izango dituela iragarki honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, bere 100.0 artikuluan agintzen duena betetzeko.

**Ordaintzeko epea, tokia eta erak**

**1. Errekargurik gabeko borondatezko ordainketa**

a) Epea: Errolda horien zenbatekoa errekargurik gabe ordain daiteke aurtengo martxoaren 15etik apirilaren 15era.

b) Ordaintzeko modua: helbideratuta ez dauden ordainagiriak Kutxabank.en ordainduko dira, eta horretarako, zergapekoen etxeetara igorriko diren inprimakien sorta aurkeztu beharko da, edo Udaletxeko idazkaritzan, kreditu/debito txartelaren bitartez; helbideratuta dauden ordainagiriak dagozkion erakundeetan kobratuko dira.

c) Tokiak: Kutxabankek dituen edozein bulegotan, Udaletxeko idazkaritzan edo ordainketa elektronikoaren bitartez.

d) Helbideratutako ordainagiriak 2019ko apirilaren 5ean kobratuko dira.

e) Borondatez ordaintzeko epea bukatuta, zorrak betearazte-bidetik exijituko dira; kasu honetan %20ko gainkargua, berandutza interesak eta, hala dagokionean, sortzen diren kastuak ezarriko dira.

Inprimakien sorta ez bada jasotzen edo galtzen bada, horren bikoiztua eskatu ahal izango da Udaletxeko idazkaritzan. Errolda jendaurrean jarriko da Udaletxeko idazkaritzan, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita eta hilabete 1eko epean.

Fruizen, 2019ko otsailaren 7an.—Alkatea, Ainara Zelaia Markaida

eek: BAO-2019a031-(II-511)